

ANDANTE

Litekeena da, bere mareetako batean, itsasoak, inoiz kontatu ez diren edo gogoratu beharra dagoen istorioak itzuli izana lurrera.

Horregatik, egun batean, marea behean zegoela, kalea algez eta zapata soltez beterik agertu zen.

Jendearen harridura osatzeko, kale horren fondotik bertatik, hiru pertsonaia bitxi agertu ziren, gurdi batekin, musikari bat eurekin zihoala.

Pertsonaiek aurrera egiten zuten, lurrean aurkitzen zituzten zapatak jasoz eta gurdian gordez. Aldian behin, geratu egiten ziren, zapatak protagonista zituzten istorio laburrak irudikatzeko. Istorio horiek erakusten zituzten zapatek, dantza egiten zuten, emigratu egiten zuten, maitemindu egiten ziren, akrobaziak egiten zituzten, jaio eta euren borraroen eskuetan ehun aldiz hiltzen ziren.

Horrela, prozesio bitxiak aurrera egiten zuen, istorio eta istorio artean. Eta zapata guztiak bildu eta haien istorioak kontatu ondoren, hiru pertsonaiak eta musikaria, berriro ere, itsasertzera heldu ziren.

Poeten itsaso horretan, gauza eta bide guztien amaiera den itsasoan, utzi zituzten berriro zapatak pertsonaiek eta, oraingo honetan, olatuak haiekin geratu ziren.

Musikariak agurreko abestia jo zuen eta, haren ondoren, pixkanaka, kalean urrunduz, desagertu egin ziren.